



Arartekoaren 2017R-1899-16 Ebazpena, 2017ko abenduaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta aldi baterako eteteko erabakia.

Aurrekariak

Herritar batek, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak, Arartekoaren esku-hartzea eskatu du, ez baitago ados Lanbideren ebazpenarekin. Horren bidez, erakunde autonomoak diru-sarrerak bermatzeko errenta aldi baterako etetea erabaki du.

Izan ere, kexagilea, lehendabizi, diru-sarrerak bermatzeko errenta bere kontu korrontean agertu ez zela konturatu zen (ez zuen jaso entzunaldia edo espedientea berrikusteko prozedura hasi izanaren jakinarazpenik). Hori dela eta, 2016ko irailaren 27an, dagokion Lanbide bulegora jo zuen (Barakaldoko Beurko auzoan), esleitu zitzaion prestazioa ez ordaintzeko arrazoiak ezagutzeko.

Kexa-idazkian azaldu duenez, bulegoan ahoz jakinarazi zioten prestazioa EAetik kanpora irten ondoren itzultzeko egunaren berri ez emateagatik aldi baterako eteteko ebazpena eman zela eta egun batzuk barru idatzizko jakinarazpena jasoko zuela. Hala ere, ebazpenaren kopia ez zioten eskura eman. Kexagilearen arabera, ebazpena jaso ez zuenez eta jakinarazpen formalik egin ez zenez, ez zekien zeintzuk ziren erabakiaren arrazoiak. Ondorioz, ezin izan zuen alegaziorik aurkeztu eta zuzenean Arartekora jo zuen, kexa aurkezteko.

Erakunde honetan aurkeztutako kexa-idazkian, kexagileak azaldu du eta dagozkion agiriekin egiaztatu du ezarritako epe eta moduan jakinarazi zuela Lanbide bulegoan bai joateko, bai itzultzeko eguna (hasieran, bidaiak uztailaren 1etik irailaren 1era iraungo zuela aurreikusita zegoen), 2016ko uztailaren 13a eta abuztuaren 22a, hurrenez hurren; eta, beraz, ez zekiela zergatik erabaki zen prestazioa etetea.

Azkenean, 2016ko urriaren 26an jaso zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta aldi baterako eteteko ebazpenari buruzko jakinarazpen formalak, baita, arrazoi berberetatik, jaso behar ez zirela jasotako zenbatekoak (904,76 euro) itzultzeko erreklamazioa ere ("*...Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egondako DSBEa jasotzeko denboraldia baino luzeago izateagatik. DSBEa jasotzeko denboraldia: 2016ko uztailaren 15etik 2016ko uztailaren 29ra*").

Aldi baterako eteteari buruzko ebazpenaren arrazoiei dagokienez, hauxe aipatu zen, hitzez hitz: "*Jakinarazitakoa baino denboraldi luzeagoan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egoteagatik*". Ez da itzuli jakinarazitako egunean: 2016ko abuztuaren 20an".





Egia esan, 2016/256007 zenbakiko agiriak egiaztatzen duenez, kexagileak jakinarazi zizkion Lanbideri joateko eta itzultzeko egun guztiak, baita itzultzeko eguna aldatzea ere, eta pasaportearen dagozkion zigiluak jarrita zituela erakutsi zuen.

Arartekoak, kexa izapidetzeko onartuta, lehenengo lankidetzak-eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.

2016ko azaroaren 9an, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzuna jaso zen erakunde honen erregistroan. Horretan, Lanbideek honako kontu hauek azaldu zituen:

"Espedientea ikusita, EAEtik kanporako joan-etorrien azken instrukzioaren arabera (2016/07/12), jasota dugu "bizikidetzak-unitatea osatzen duten pertsona guztiek EAEtik kanpora irten izana ezarritako denbora baino gehiagoz."

Prestazioaren hileroko bat eten zitzaien, haren egoeraren arabera baimenduta duen irteera-denbora bukatutakoan. Itzuli izana jakinaraztean, prestazioa berriz hasi zen, lehenago baldintza beretan.

Gainera, honako hau adierazita zegoen Lanbideren idazkian: *"Gertaera horren ondorioa da DSBE prestazioa eten izana, eta itzuli zirela jakinarazi zutenean, prestazioa berriz hasi zen. Ofizioz berriz hastean, aplikazioak zenbait zenbateko ordaindu zizkien, atzerapenen kontzeptuarengatik, eta zenbateko horiek behar baino handiagoak izan ziren. Horrenbestez, bidegabeko kobrantzen prozedurari ekin diogu".*

Gauzak horrela, Lanbideek onartu egin zuen gaizki kalkulatu zituela atzerakinak, kexagileak epe eta modu egokian jakinarazpena egin zuen arren. Kalkulu akatsa izan da arrazoi bakarra jaso behar ez zirela jasotako zenbatekoak itzuli beharra adierazteko.

Lanbideek Arartekoaren informazio-eskaerari erantzunez bidalitako lehenengo informazio hori aztertuta, bigarren informazio-eskaera bidaltzea komeni zela erabaki zen, ildo nagusietan honako hau adierazita:

*"1. Lehenik, erakunde honek berriro adierazi behar du **ez dagoela Euskaditik kanpora egindako irteerak jakinarazteko betebeharririk**. Dakizunez, kontu hori aipatu beharra dagoela iruditzen zaigu, kexa ugari sorrarazten ari baita.*

(...)

2. Bigarrenik, kexagileak dio Lanbideri jakinarazi ziola uztailearen 15etik irailaren 1era egin zuen irteera bat. Jakinarazpen hura uztailearen 13an egin zen (Lanbideren erregistro zenbakia: 2016/215263). Kexagilea data hori baino lehenago itzuli zen, abuztuaren 22an; beraz, Lanbideek haren egoeraren berri izango zuen une oro. Orduan, erakunde honen ustez, ezin liteke lotu jarduera hori DSBE prestazioa eteteko ezein arrazoirekin".

(...)





Informazio osagarria jasotzeko eskaera horri erantzunez, Lanbidek beste txosten bat bidali zion Arartekoari, honako kontu hauek azalduta:

"Espedientea aztertuta, 2016/07/12ko jarraibideen arabera, "EAEtik kanpora joatea, erabakitakoa baino denbora gehiagorako, betiere bizikidetzta-unitatea osatzen duten pertsona guztiak egun beretan joaten eta itzultzen badira."

Aplikazioak lan-egoeraren arabera dagokion aldia ordainduko du (lana duenari 30 egun; langabetuari 15 egun), oporrak hartzeko. Oporretarako daukan aldia gaindituz gero, aplikazioak automatikoki etengo du prestazioa, itzultze eguna erregistroan jaso arte. Orduan, aplikazioak automatikoki hasiko da berriz prestazioa ordaintzen.

Bukatzeko, Lanbidek adierazi zuen: *"Kasu horretan, 2016ko uztailaren 15etik 29ra bitarte ordaintzen da prestazioa (oporretan EAEtik ateratzeko jakinarazitako aldian); uztailaren 30etik abuztuaren 20ra arte, eskubidea eten egiten da, EAEtik ateratzeagatik eskubidea duen aldia gainditzeagatik. 2016/08/21ean automatikoki hasten da berriz jasotzen prestazioa".*

Hortaz, beharrezko egitate- eta zuzenbide-elementuak dauzkagula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, prestazioak eteteko (edo azkentzeko) espedientearen inguruko ebazpena eman aurretiko entzunaldia askotan izan da Arartekoak prestazio horien kudeaketan esku hartzeko arrazoia. Arartekoaren iritziz, prozedura horietan prebentziozko izaera zuen oinarrizko bermea zen hori, oinarrizko beharrak estaltzen dituen prestazio bati eragiten baitio. 2013ko diagnostiko-txostenean, gomendio hau eman zen berariaz:

"13ª que se apliquen los arts. 53 y siguientes del Decreto 147/2010 y, en concreto, que se aplique el trámite de la audiencia previa con relación a todos los procedimientos de suspensión, modificación o extinción del derecho a la prestación" (p. 52).

2. Gainera, aipatu beharra dago Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 43. artikulua (*Eskubidea etetea*) arautzen dituela prestazioa eteteko arrazoiak, baina *EAEtik kanpora egindako irteerak ez jakinaraztea* ez dagoela horien artean jasota. Harrigarria da Lanbidek EAEtik kanpora egindako irteerak aldeztu aurretik jakinarazteko betebeharra betetzea eskatzen duela, legegileak halakorik aipatu ez badu. Izan ere, gidalerro horiek Lanbidek onartutako irizpideen dokumentuetan bakarrik daude jasota.





Interesdunaren kasuan, gainera, egiaztatu da kexagileak jakinarazi zizkiola Lanbideri EAetik kanpora egindako irteera guztiak, baita itzultzeko egunak ere. Era berean, itzultzeko eguna atzeratu egin zela jakinarazi zion (2016/07/15ean itzuli beharrean 2016/08/20an itzuli zen) eta jaso zituen Lanbidek emandako egiaztatiriak.

Kexa-espediente honen arrazoia Arartekoak honako testu honetan aztertu zuen: "*Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017*"¹:

Arartekoak, Lanbidek ez bezala, ezin du onartu eskubide bat ukatzea, etetea edo iraungitzea eragin dezaketen erabakiek ez dutela babes arautzailerik, ezartzekoa den gidaliburuan jasotako irizpidea oso zentzuzkoa izan arren.

Aipatu 2017ko diagnostiko-txostenean honako hau azaldu zen, prestazioa arrazoi horregatik eteteari dagokionez:

"Lanbide hasierako irizpidea egokitzuz joan da, oso murriztailea baitzen, eta EAetik kanpora irtetea baimendu die lan egiten dutenei eta enplegurako eskuragarri egotetik salbuetsita daudenei (pentsiodunei, lan egitetik salbuetsita daudenei eta abarrei), hilabetez; baita pertsona horien ezkontideei eta seme-alabei ere. Enplegurako eskuragarri egon behar duten gainerakoek 15 egun egin ditzakete kanpoan, prestazioa jasotzen jarraitu nahi badute. Irizpide horien arabera, pertsona horiek egonaldi luzeagoa egiten badute kanpoan, baina ez badituzte 90 egunak gainditzen, prestazioa jasotzeari uzten diote aldi horretan".

(...)

Beste alde batetik, gero eta kexa gehiagotan erabakitzen du Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea etetea, titularrak aurretik jakinarazi arren EAetik kanpo egindako irteera, Lanbidek emandako 15 edo 30 eguneko epea gainditzeagatik, irizpideen dokumentuarekin bat eginez.

Aurretik, titularrak EAetik kanpo egindako soberako egunak eteten zituen Lanbidek; egun, ordea, prestazioa eteten du".

"Esku-artean dugun kasua bezalakoetan, etetea ebatzi izana oinarri juridikorik gabeko erabakia da eta, gainera, neurriak eragindako eskubideen titularrak baldintzatzen ditu egin ditzaketen jardunbideei dagokienez; izan ere, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutakoaren 28.1.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, bigarren aldiz eteteak eskubidea iraungitzea ekarriko luke, eta titularrak ezingo luke prestazio hori berriro ere eskatu iraungitzea gertatu den egunetik urtebete igaro arteko epean".

¹ **Arartekoa.** Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017 [linean]. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf



(...)

3. Arartekoaren iritziz, kexagilearen prestaziorako eskubidea Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo hamabost egun baino gehiago egoteagatik eteteak, bidaiaren iraupena eta itzultzeko eguna aldatzea aldez aurretik jakinarazi zuela kontuan hartuta, ez du arauen babesik.

Prestazioa jasotzeko eskubidea eteteak kalte larriak ekarri dizkio kexagileari; izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea indarrean dagoen bitartean berriz eten egiten bada, araudiarekin bat, eskubidea azkendu egingo da eta urte batez ezin izango du berriz eskatu: *azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutako abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1 e) artikuluekin bat, bigarren etenaldiak eskubidea azkentzea eta eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte berriz eskatzeko aukerarik ez izatea ekarriko luke ondorioz.*

4. Horrez gain, kexagileak zenbateko bat itzuli behar du, prestaziorako eskubidea berriz onartzeko prozeduran ordaindutako atzerakinak gaizki kalkulatuta zeudelako eta kexagileak jaso behar ez zituen zenbatekoak jaso zituelako. Kontu horri dagokionez, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren inguruko irizpideak aplikatu ditu, baina jaso behar ez zirela jasotako zenbatekoak itzultzeko beharra adierazi da, Lanbideren esanetan, Lanbidek erabiltzen duen aplikazio informatikoak huts egin zuelako eta kexagileari dagokiona baino zenbateko handiagoa ordaindu ziolako.

Laburbilduz, Arartekoaren iritziz, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea EAetik kanpo 37 egunez (2016/07/15etik 2016/08/20ra, egiaztagiaren zk.: 2016/256007) egoteagatik etetea, aldez aurretik entzunaldia eman gabe, ez da bidezkoa araudiaren arabera. Kontuan izan behar da kexagileak irteeraren berri eman zuela, baina Lanbidek ez ziola esan horrek prestaziorako eskubidea etetea ekarriko zuenik (lehenengo 15 egunak kenduta, gainerako egunetan prestazioa ez zela ordainduko jakinarazi zioten bakarrik).

Irizpideen aldaketa horrek ez du oinarri juridikorik aplikagarria den araudian, 2017ko diagnostiko-txostenean dagoeneko agerian utzi zen bezala.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, hurrengo gomendioa aurkeztu dio Arartekoak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

GOMENDIOA

Arartekoak gomendatzen dio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta aldi baterako eteteko erabakia.

